

Bilboko Udalak eta Bilboko Koral Elkarteak Bilboko Korala Gertutik zikloaren bederatzigarren edizioa aurkeztu dute

- **Guztira, doako sei kontzertu eskaiko dira hiriko hainbat gunetan maiatza eta ekaina bitartean.**
- **Bilboko Koral Elkarteko hainbat korutako eta instrumentu-taldetako 300 interpretek baino gehiagok batera jardungo dute agertokian edizio honetan.**

(Bilbon, 2025eko maiatzaren 9an). - Bilboko Udalak eta Bilboko Koral Elkarteak **Bilboko Korala Gertutik** zikloaren bederatzigarren edizioa dakarte, non **maiatzean eta ekainean doako sei kontzertu eskainiko diren hiriko hainbat** gunetan. Ekimen honen bidez, bertako kultura eta talentu koral eta instrumentala barruti guztietara eraman nahi da, herritar orok esperientzia artistiko batez gozatzeko aukera izan dezan.

Bilboko Koral Elkarteko hainbat korutako eta instrumentu-taldetako **300 interpretek baino gehiagok batera jardungo dute agertokian** edizio honetan; hala, Bilboko erakundeak bereizgarri dituen musika-aberastasuna eta konpromiso artistiko eta hezitzailea erakutsiko dute.

Zikloa **maiatzaren 10ean hasiko da, 17:30ean, Erruki Etxe Santu eta Errealean, Bilboko Koral Elkarteko haurren koruek, musika-hastapeneko tailerrek eta prestakuntza-koruek** eskainiko duten kontzertuarekin.

Maiatzaren 17an, 18:00etan Conde de Aresti Egoitzan, gazteen Euskeria koruak bere moldakortasuna erakutsiko du. Hurrengo larunbatean, **maiatzaren 24an, 18:00etan egoitza berean, Musika Eskolako instrumentista gazteek osatutako gitarren, Jesús Guridi eta Aureliano Valle orkestren txanda** izango da.

Maiatzaren 30ean, 18:30ean, Organo-ikasgelako ikasleek errezitaldia eskainiko dute **Joan Santuen Eliza** enblematikoan. Zikloan aurrera eginda, **ekainaren 6an, 19:00etan Conde de Aresti Egoitzan, Miguel de Unamuno-Bertendona BHiko Eskolan Kantari koruak eta Kantu-ikasgelako** ikasleek beren talentua agertuko dute.

Zikloa **ekainaren 7an amaituko da, 18:00etan Conde de Aresti Egoitzan**, Bilboko Lehen Hezkuntzako hainbat ikastetxetako koralistek osatutako **Eskolan** Kantari taldearen kontzertuarekin, zeinak, txikienek protagonizatuta, Bilboko Koral Elkarteak musika-prestakuntza haurtzarotik sustatzeko duen konpromisoa azpimarratuko duen.

Programazio honekin, Bilboko Korala Gertutik zikloak Bilboko kultur erreferente gisa sendotzen jarraitzen du, musika-eskuragarritasun unibertsala sustatzeaz eta hiriko bizitasun artistikoa nabarmentzeaz batera.

El Ayuntamiento de Bilbao y la Sociedad Coral de Bilbao presentan la novena edición del ciclo **Bilboko Korala Gertutik**

- Se celebrarán un total de seis conciertos gratuitos en diferentes espacios de la Villa durante los meses de mayo y junio.
- Más de 300 intérpretes provenientes de distintas agrupaciones corales e instrumentales de la Sociedad Coral de Bilbao, se subirán al escenario en esta edición.

(Bilbao, 9 de mayo de 2025).- El Ayuntamiento de Bilbao y la Sociedad Coral de Bilbao impulsan la novena edición consecutiva del ciclo **Bilboko Korala Gertutik**, ofreciendo **seis conciertos gratuitos en diferentes espacios de la Villa durante los meses de mayo y junio**. Esta iniciativa busca acercar la cultura y el talento coral e instrumental local a todos los distritos, potenciando una experiencia artística abierta y accesible para la ciudadanía.

Más de 300 intérpretes, provenientes de distintas agrupaciones corales e instrumentales de la Sociedad Coral de Bilbao, compartirán escenario en esta edición, poniendo de manifiesto la riqueza musical y el compromiso artístico y educativo que caracteriza a la institución bilbaína.

El ciclo comenzará el **10 de mayo a las 17:30 horas en la Santa y Real Casa de Misericordia** con un concierto protagonizado por los **coros infantiles, talleres de iniciación musical y coros formativos de la Sociedad Coral de Bilbao**, acercando la música coral a todas las generaciones.

El día 17 de mayo, a las 18:00 horas, la Residencia Conde de Aresti acogerá al Coro Euskeria, destacando la versatilidad de este conjunto juvenil. El sábado siguiente, **24 de mayo, también a las 18:00 horas y en la misma residencia, será el turno de las orquestas de guitarras, Jesús Guridi y Aureliano Valle**, compuestas por jóvenes instrumentistas del Centro de Enseñanza Musical de la entidad.

El 30 de mayo, a las 18:30 horas, el Aula de Órgano protagonizará un recital en la emblemática **Iglesia Santos Juanes**. Continuando con el ciclo, el día **6 de junio a las 19:00 horas en la Residencia Conde de Aresti, el coro Eskolan Kantari del IES Miguel de Unamuno-Bertendona**, junto con el **Aula de Canto**, compartirán su talento.

La clausura del ciclo será el **7 de junio a las 18:00 horas en la Residencia Conde de Aresti, con Eskolan Kantari** integrado por coralistas procedentes de distintos centros educativos de primaria de Bilbao. Este concierto, protagonizado por los más pequeños, resalta el compromiso de la Sociedad Coral de Bilbao con la formación musical desde la infancia.

Con esta programación, el ciclo Bilboko Korala Gertutik continúa consolidándose como un referente cultural en Bilbao, promoviendo el acceso universal a la música y destacando la vitalidad artística de la ciudad.

· **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)

· **BILBAO KULTURA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)

www.bilbaokultura.eus

· **BILBOKO KORAL ELKARTEA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)

www.coraldebilbao.com